

A2
LH



Eusle Programa - Laburpen koadroa

1. BLOKEA: KAIXO, BERRIRO HEMEN

Hitzekin eta eskuekin sortuko ditugunak:
Oparitxoak egingo ditugu bertan mezuak txertatuz gelako laguntzat, oporretan gertatutakoak modu laburrean partekatu ditugu eta gure aldaketak...

Gaiak Ongi etorria Udako oporren kontaketa Gure aldaketen deskribapena

1. ONGI ETORRI!
Mezu positiboak (elkarri) egiteko oparitxoetan

2. OPORRETAN PRIMERANI!
Oporrak kontaktuko oinenezko bideez

3. ALDATU EGIN GARA
Izan ditugun aldaketak ahoz deskribatuko ditugu.

- ERRUTINAK**
- Agurrak
 - Ordutegia
 - Egunaren banaketa
 - Eguraldia
 - Emozioak + deluaren mapa
 - Jolasak

2. BLOKEA: GURE BIZIPENAK

Hitzekin eta eskuekin sortuko ditugunak:
Lapbookak erabiliz norberaren autobiografiatik hasi, beste norbaiten biografiara pasatuz. Jantzien gaia aprobeztatuz, sorkuntzan eta ekoizpenen aurkezpenen murgilduko gara.

Gaiak Autobiografiak Biografiak Pasadizoak kontaktuz

1. NIRE AUTOBIOGRAFIA
Lapbook bitartez gure autobiografiak irudikatu eta kontatu. (1.pertsona)

2. MAITE DUDANAREN BIOGRAFIA
Lapbooka egin norbaiten biografiarekin. (3.pertsona)

3. NIRE PASADIZOA
Euskarri bat erabiliz, ikaskideei horri lotutako pasadizoak kontatu.

3. BLOKEA: GURE ETXE ZORAGARRIA

Ekoizpenak/sortuko direnak : Dagoeneko herria /hiria zertxobait gehiago ezagutzen dute. Horretan sakontzeko gida sortuko dute. Ingurune hurbilera joanez, beraien gustuko etxea diseinatu eta iragarri egingo dute lehenengo, eta gero, beraien logela ideala sortu eta deskribatu.

Gaiak Etxea diseinatzen Logela ideala

1. NON BIZI NAIZ?
Herriko/hiriko gida digitala sortuko dugu

2. NIRE GOGOKO ETXEA
Gogoko etxea planifikatzea eta iragartzea

3. NIRE LOGELA IDEALA
Norberaren gela apaindu eta deskribapena aurkeztu

4. BLOKEA: MAGIA

Ekoizpenak/sortuko direnak : Trukuak ikasi eta aukeratu. Entsaioak egin eta, azkenik ekitaldia edo ikuskizuna burutuko da.

Gaiak Truku ezberdinak Aurkezleak eta magoak Apainketa eta dibulgazioa

1. MAGIA TRUKUAK
Magia trukuen informazioa biltzea, ezagutzea eta ulertzea

2. MAGIA EGITEN IKASIKO DUGU
Magia egitean elkarriketak sortu, materiala sortu

3. MAGIA EMANALDIA
Kartelak egin eta emanaldia prestatu

Nire portfolioa

Errutinak

Portfolioa + Bideoak

2. BLOKEA: GURE, DENON, BIZIPENAK ETA ASMOAK

Egoera: Txikitako pasadizoak edo anekdotak kontatzeko garaia heldu da. Zer egiten genuen, gure gustuak zeintzuk ziren eta aldi berean orain zer egiteko gai garen. Eta etorkizunean? Zeintzuk dira gure asmoak? Zer izan edo egin nahiko genuke?
Gure bizitza kontatu ondoren, gure familia kideren baten edo pertsonai baten bizitza kontatuko dute.
Azkenik, irudimena erabiliko dugu diseinatzaile bihurtzeko.

1. UNITATEA: GURE AUTOBIOGRAFIA

HELBURUA:

Norberaren bizipenak idatziz kontatzea, txikitatik hasita etorkizunera arte.

Txikitako pasadizo bat kontatzea.

HIZKUNTZA FUNTZIOAK ETA EGITURAK

Aurkezpena: nor naiz, nolakoa naiz, non eta noiz jaio nintzen. Non bizi naiz orain.

Denbora adieraztea: lehen, txikitari, ...urterekin, hilabeterekin, orain, gero

Lehenengo deskribapena: ...nintzen.

Zer egiten nuen: marraztu, jolastu, igeri egin, negar, lo asko... egiten nuen/nituen.

Zaletasunak adieraztea: musika jotzea, igeriketa egitea, bizikletan ibiltzea, margotzea, gailetak jatea, lo egitea, musika entzutea...

Gertatutakoa adieraztea: erori nintzen, apurtu nuen, ...ikasi nuen, egiten nuen, joan nintzen...

Aditz denborak:

- lehenaldia; nintzen, gustatzen zitzaidan, egiten nuen...
- orainaldia: egiten dut, naiz, gustatzen zait...
- geroaldia: egingo dut, izango naiz...

Baieztatzea: ba niri berdin gertatu zait. Niri ere gertatu zait. Baita niri ere...

Ataza: Denbora- marran norberaren bizitzako informazio garrantzitsua kokatzea eta idaztea argazkien laguntzaz.

Norberaren autobiografia idaztea etorkizunerako proiektioarekin.

Miniataza: ahoz txikitako informazioa besteekin konpartitu.

Testuaren egitura	Ikaslearen ahozko adierazpena
<ul style="list-style-type: none"> ● Autobiografia1 ● Ahozko kontaketa <p>Autobiografiaren egitura/ordena:</p> <p>1. Aurkezpena: nor naiz, noiz eta non jaio nintzen, non bizi naiz...</p> <p>2. Lehen/txikitan... nolakoa nintzen, zer egiten nuen, zer gustatzen zitzaidan.</p> <p>3. Orain.... nolakoa naiz, zer egiten dut eta zer gustatzen zait.</p> <p>4. Gero... Zer egingo dut, zer izango naiz</p>	<p>Ahozko kontaketa: Egun batean, ... Txikitan, 2 urterekin, ... hilabetekin ... apurtu _nuen, erori nintzen, galdu nintzen... ... urterekin bizikletaz ikasi nuen.</p>

1. jarduera multzoa: UNITATEA AURKEZTU ETA HELBURUAK ZEHAZTU			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA	BEHAKETA / Adierazleak
<p>* Saio guztietan, hasieran.</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Agurrak: Kaixo, egun on / arratsalde on. ● Errutinak:... ● Erantzun fisiko osoa ● Aginteak, hiztegia ikasteko 	<ul style="list-style-type: none"> ● Erantzun fisiko osoa : “Ximonek dio...” (jolasa) 	<p><i>Zutik, eseri, salto, bi pausu ezkerretara, makurtu...</i></p> <p>Aginduak ulertu, errepikatu eta eman</p>	<p>Ikasleek parte hartzen dute</p> <p>Aginduak ulertzen eta ematen dituzte.</p>

<p>Motibazioa lantzeko jarduerak</p> <p>Argazki edo pertsonen irudiak aurkeztu eta sailkapenak egin. Urteak adierazten dituzten txartelak banatu argazkiekin batera ordenatzeko. Argazkietakoak deskribatu.</p>	<p>Argazkiak edo pertsonen irudiak. Txartelak urteekin.</p>	<p><i>Txartelak ordenatuko ditugu. Hartu txartela eta ordenatu. Irudiak ordenatu. Zein da lehenengo... Zenbat urte izango ditu?</i></p>	<p>Ikasleek interesa erakutsi dute</p> <p>Oinarrizko hizkuntza egiturak entzun eta ulertzen dituzte</p>
<p>Abestia entzun eta koreografia ikasi.</p> <p>Bideoa ikusi</p> <p>Piraten bizitza abestia bideoa ikusi eta abestia ikasi.</p> <p>Mimikarekin adierazi letra</p> <p>Eskuetan abestia</p>	<p>Nire gorputza da bideoa</p> <p>Piratak bideoa</p> <p>Eskuetan bideoa</p>	<p><i>Abestia entzun eta ikasiko dugu. Abestu. Ikusi dantza/koreografia eta egin. Kopiatu dantza. Goazen dantzatzerara.</i></p> <p><i>Nor dira? Piratak dira?</i></p>	<p>Ikasleek parte hartzen dute</p>
<p>Zer egingo dugu? eta zer ikasiko dugu?</p> <p>Bizitza lerroa aurkeztu jakiteko zer diren.</p> <p>* Ikasleekin planifikazioa prestatu.</p>	<p>Bizitza lerroa Bizi lerroa2</p>	<p>Hau egingo dugu. Lerroa da Hau egingo dugu.</p>	<p>Argibideak ulertu dituzte Helburuak ulertu dituzte</p>

Eredua erabili daiteke beraren gainean egin behar dena azaltzeko.	Planifikazioa autobiografia Denbora lerroak.-online erremintak	Bizitza-lerroak aztertu Nire informazioa jaso, txikitako argazkiak ekarri. Denbora-lerroa egin Argazkiak jarri eta idatzi informazioa. Pasadizoa kontatu...	
2. jarduera multzoa: AZKEN EKOIZPENAREN EREDUA AURKEZTU			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA	BEHAKETA / Adierazleak
Eredua aurkeztu Egin behar dena ulertarazi. Kasu honetan marra-lerroaren bidez edo testu idatzia den erabaki eta hori bakarrik aurkeztu.	Nire egunerokoa Sararen autobiografia Lilianeren autobiografia Ahozkoa Bizi lerroa2	Hau egingo dugu. Marraskia eta idatzi: Txikitan, 3 urterekin... zer kontatu zure historian.	Ea eredu ulertzen duten.
Aurrezagutzak azaleratzen LHn Auto-biografia hitzarekin jolastu. Zer da? Autoa izango da? Idatzi informazioa edo marraskiz	Arbela	Nolakoa zinen txikitan? Txikitako informazioa idatzi. Zer jaten zenuen? 4, urterekin zertara jolasen zinen? Keinuekin ulertarazi.	Urteen arabera ordenatzeko gaida.

adierazi.			
Bizitza-lerroak aurkeztu. hutsik eta urteak eman idatzita edo txartel batean ordenatzeko. Adin ezberdinetako pertsonen argazkiak eman. Esan ordenatzeko nahi duten moduan.	Urteak idatzita. Argazkiak edo irudiak.	Ordenatu. Nor da txikia? Nor da handia? Nolako da hau? Hau hemen aurrean, hau honen atzean edo ondoren...	
3. jarduera multzoa: Eredua aztertzen egitura aldetik			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA	BEHAKETA / Adierazleak
Oinarrizko egitura identifikatu: Eskema aurkeztu eta atalak identifikatu. Espazialki identifikatu ezkerreko lehenaldia edo txikitakoa, erdiko orainaldia eta eskuineko geroaldia.	Autobiografia-eskema	Zenbat zati edo momentu daude? <i>Lehen/ txikitakoa non dago idatzita?</i>	Denbora desberdinak espazialki identifikatzeko gai da.
Eskemaren arabera, Sara edo Lilianeren erudian atalak identifikatu. Azpimarratu galderen erantzunak kolore ezberdinez bereizketa egiteko.		<i>Zer idatzi du Sara? Txikitako informazioa? Eta Lilianek?</i>	Autobiografiaren atalak identifikatzen ditu.

<p>Urteak kronologikoki doazela konturarazi.</p> <p>Bizitza-lerroa aztertu: urtea eta esaldi esanguratsua. Ekintzak identifikatu.</p> <p>Lehen, txikitako eta oraingo informazioa bereiztu.</p>	<p>bizitza lerroa Bizi lerroa2</p>	<p>Oinez ikasi, ikastolara joan, karabanarekin 1. urtea, ikastola handian, jaio nintzen, hortza jausi zitzaidan, ...</p> <p>Zer informazio ematen du? Txikitakoa? Eta oraingoa?</p> <p>Gitarraren bizi-lerroan zer falta da?</p> <p>Hiru momentuak ditu?</p>	<p>Bizitza-lerroaren egitura ulertzen du.</p> <p>Landutako lexikoa identifikatzen dute.</p> <p>Parte hartze aktiboa.</p>
<p>4. jarduera multzoa: EREDUA LANTZEN: etorkizuna</p>			
<p>JARDUERAK</p>	<p>BALIABIDEAK</p>	<p>HIZKUNTZA</p>	<p>BEHAKETA / Adierazleak</p>
<p>Etorkizuna asmatzen:</p> <p>Bizi-lerroa2ko azken urteari jarraipena emango diogu.</p> <p>Beste papel batean gitarrari beste marrazki bat egin musikarekin zerikusia duena.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bizi-lerroa2, papera eta irudimena. 	<p>Idatzi urteak Jarraitu urtean idazten: Zer egingo du? Zer gertatuko da? Nolakoa izango da umea?</p> <p>25 urterekin nolakoa izango da? Zer egingo? Ikasiko?</p>	<p>Partehartze aktiboa.</p>

<p>Marrazki horretan bizi-lerroa jarraitu marrazten eta urteak banan-banaka.</p> <p>Urte bakoitzean irudikatu zer egingo duen edo nolakoa izango den.</p>	<p>Aditza: geroaldia lantzeko ariketak.</p> <p>Ni/ bera/ gu pertsonak.</p>	<p>ikusiko?</p> <p>Izango?</p> <p>Gustatuko zaio?</p>	<p>Geroaldia erabiltzen du.</p> <p>Izenordeak erabiltzen ditu.</p>
<p>Lanbideak lantzen</p> <p>Etorlkizunean egongo diren lanbideak aurkitu behar dira.</p> <p>Gaur egun LHn batzuk ageri dira..</p> <p>Argazkiak eta izenak ikasi .</p>	<p>LH iragarkiak edo lanbideen eskaintzak</p> <p>INternet</p> <p>Bideoa</p> <p>Bideo1</p>		<p>Landutako lexikoa identifikatzen du.</p>
<p>5. jarduera multzoa: GURE TESTUA SORTZEN.</p>			
<p>JARDUERAK</p>	<p>BALIABIDEAK</p>	<p>HIZKUNTZA</p>	<p>BEHAKETA / Adierazleak</p>
<p>Bizi-lerroa edo autobiografia idazten</p> <p>Norberaren datuak jaso txantiloia arabera, eta ereduaren laguntzaz eurena sortu.</p>	<p>Ereduak</p> <p>Autobiogarfia-eskema</p> <p>Sarearen autobiografia</p> <p>Lilianeren autobiografia</p>	<p><i>Bizi-lerroa egingo dugu.</i></p> <p><i>Datuak jaso eta idatzi.</i></p> <p><i>Argazkiak itsatsi.</i></p> <p><i>Argazki oina idatzi.</i></p>	<p>Bizi-lerroa egiten dute.</p> <p>Data kronologikoki ageri dira.</p> <p>Informazioa lehen eta geroaldian bereiztu dute.</p>

6. jarduera multzoa: Ebaluazioa eta koebaluazioa			
Elkar zuzentzen dira txantiloia arabera	Koebaluaziorako txantiloia	Atal hau egin dut, dugu. Hau ez dago. Hemen hau falta da. Ondo dago.	Txantiloia bete da eta ahoz esan dute zerbait nahiz eta irakurri.
Prozesua baloratuko dute. Ea atal guztiak bete dituzten. Batek irakurri eta besteak ahoz egiaztatu.	Planifikazioa autobiografia	Proiektuan hau egin dugu: datuak hartu, aztertu....	
Autoebaluazioa Ebaluazioa	Portfolioan ebidentziak jaso.		Unitatearen autoebaluazioa Sekuentzia ebaluazioa (irakaslea)

Egoera: Hainbat pertsona ezagutzen ditugu. Batzuk ospetsuak, baina beraien bizitza, asmoak, ikasketak... ezagutzen ditugu? Nortzuk dira, edo ziren pertsona horiek, zer egin zuten.... hori da ikasiko duguna. Pertsonen biografiak idazten.

2. UNITATEA: Gure bizitzako pertsonaiaren biografia

HELBURUA:

Pertsona baten biografia idaztea.

HIZKUNTZA FUNTZIOAK ETA EGITURAK

- Aurkezpena: nor da, nolakoa da, non eta noiz jaio zen. non bizi zen, noiz hil zen...
- Denbora adieraztea: lehen, txikitan, ...urterekin, hilabeterekin, orain...
- Zer izan zen, zer lanbide izan zuen/zituen...
- Zer egin zuen: marraztu, jolastu, igeri egin, negar, lo asko... egin zuen.
- Orain, bizirik badago, zer egiten du.
- Bere obra interesgarriak.
- Izenordeak: haren, hark...

Ataza: Pertsonai ospetsu edo nahi duen baten biografia idaztea testu itxuran edo Kuboaren laguntzaz pertsona baten biografia idaztea.

Testuaren egitura

- **Aurkezpena;**Nor zen/da, zer lanbide du/zuen.
- **Datu pertsonalak:** jaioterria, jaiotze eguna, non bizi zen, gustuak, zer ikasi zuen.
- **Bere lana:** zer egin zuen/egiten du orain, sariak edo obra interesgarriak.

IKASLEAREN AZKEN EKOIZPENAREN EREDUA:

Elena Odriozola

Azken ekoizpenaren eredia

Imanol Urbieta euskal musikari eta idazlea izan zen.
Zarautzen jaio zen, 1934ko martxoaren 10ea . 2016ko irailaren 28an hil zen.
Gasteizen, Donostian... musikako ikasketak egin zituen.
Haurrentzako musika konposatu zuen. Jo Braum abestia eta beste asko sortu zituen.
Bere sariak. [2010eko abenduaren 5ean Argizaiola Saria](#) eman zioten, «umeen euskarazko kantutegiari egindako ekarpenagatik».

Donostian jaio zen, 1967an.

Arte eta dekorazio ikasketak egin zituen. Ikasketak amaitu ondoren, zortzi urtez publizitate agentzia batean lan egin zuen.

1998an publizitatearen arloa utzi zuen eta Ilustrazioak egiten, marrazkiak, lan egingo zuela erabaki zuen.

Ilustratzailea da. Argitaletxe askorekin kolaboratzen du. Haurrentzat eta testu, kartel, programa, iragarki ... marrazkiak egiten ditu. Liburuak ilustratzen ditu.

2004. urtetik aurrera erakusketak eta tailerrak egin ditu.

Haren sariak hauek dira:

- 2006. urtean, Haur Liburuen Ilustrazio Onenen Bigarren Saria irabazi zuen.
- 2015. urtean Haur literaturako Mikel Zarate saria irabazi zuen
- 2009. eta 2013. urteetan Euskadi Saria lortu zuen.
- 2015. urtean, Ilustrazio Sari Nazionala lortu zuen.

1. jarduera multzoa: UNITATEA AURKEZTU ETA HELBURUAK ZEHAZTU

JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA	BEHAKETA / Adierazleak
Motibazioa lantzen <i>Irudia aurkeztu eta galdetu</i> <i>Nor da? Zer da? Zergatik da ospetsua?</i>	https://www.profedeele.es/profesores/fichas-personajes-famosos/ Pertsonaiak		Gaiarekiko motibazioa erakusten du.
Egitekoa zehazten. Euren bizitzako informazioa jaso eta idatziko dugula esan. Biografia idatziko dutela adierazi. Biokuboen irudiak erakutsi.	bio-kuboak	Hau egingo dugu. Kuboa idatziko dugu. Hauek biografiak dira. Pertsonaien bizitza idatziko dugu.	Argibideak ulertu dituzte Helburuak irudikatzen dituzte
2. Jarduera multzoa: AURREZAGUTZAK AZALERATZEN			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA	BEHAKETA / Adierazleak
Urratsak bideoa ikusi, pausuak ezagutzeko eta jarraitzeko.	BIOGRAFIA Urratsak Powtoon animazioa.		
jarduera multzoa: EREDUA AZTERTZEN ETA EZAUGARRIAK IDENTIFIKATZEN			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA	BEHAKETA / Adierazleak

<p>Eredua aurkeztu</p> <p>Biografia eta autobiografia konparatuko dituzte. Zer dute berdina? Zer da ezberdina?</p>		<p>Zer atal ditu autobiografiak? Zer du ezberdina? Noren informazioa da biografia?</p>	<p>Parte hartze aktiboa.</p>
<p>Egitekoaren ezaugarriak zehazten sortuko duten testuaren ezaugarriak zehazten</p> <p>Irakurri informazioa eta atalak identifikatzeko. Aukeratu testu bat eta denon artean irakurriko dugu. Denon artean, bertako atalak zehaztuko ditugu. Kuboan ageri diren atalak identifikatuko dituzte.</p> <p>Ereduetatik, atalak identifikatuko dituzte. eta gidoia osatu. Hirukoteka.</p>	<p>Elena biografia Biografiak Emakume zientzilariak Kuboa</p>		<p>Autobiografiaren atalak identifikatzen ditu.</p>
<p>jarduera multzoa: HIZKUNTZA LANTZEN</p>			
<p>JARDUERAK</p>	<p>BALIABIDEAK</p>	<p>HIZKUNTZA</p>	<p>BEHAKETA / Adierazleak</p>

<p>Informazioa aurkitzen</p> <p>Ikasle bakoitzak pertsonai bat aukeratuko du. Eta, pertsonai horri buruzko informazioa jasoko du.</p> <p>Ondoren, hirukoteka jarriko dira: batek kazetari lana egingo du, bestea pertsonai ospetsua izango da eta hirugarrena idazkaria, datuak jasoko duena.</p> <p>Hirukoteak osatu direnean euren artean erabakiko dute rol bakoitza.</p> <p>Kazetariak, galderak egingo ditu, pertsonaiak erantzungo ditu eta idazkariak jasoko ditu.</p> <p>Elkarrizketa amaitu denean, Paperak aldatuko dituzte.</p>	<p>Elkarrizketa</p>	<p>Egun on, arratsalde on. Galdera batzuk egingo dizkizut. Mila esker, eskerrik asko etortzeagatik.</p> <p>(gidoiko galderak)</p>	<p>Pertsonai baten informazio esanguratsuena aukeratzen du.</p>
<p>Haren ... ordezkapena</p> <p>Komikia irakurri eta ondoren, ahozko adibideak erabilpena ulertzeko.</p>	<p>Haren Haren-hark</p>	<p><i>Noren lana da?</i> <i>Haren lana da.</i> <i>Haren liburuak.</i> <i>Haren marrazkiak.</i></p>	<p>Haren, hark erabiltzeko gai da.</p>

Irakurri Ghandiren biografia eta hobetu	Ghandi egokitzapena		
Zer egin zuen, kontzeptuak Taldeka, ahoz esaldiak egin eta esango dituzte.	Zer egin zuen	Abeslariak abestia abestu zuen Margolariak koadroak margotu zituen.	
Jarduera multzoa: biografietan trebatzen			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA	BEHAKETA / Adierazleak
Hirukoteak elkartuko dira eta pertsonaien biografia idazten hasiko dira. Horretarako idazkariaren datuak eta pertsonaia izan denarenak erabiliko dituzte. Arkatzak erdira: Ahoz adostu eta gero idatzi.	Kubo artxiboko gidoia	Guk ---ren biografia idatziko dugu. Zer jarriko dugu lehenenengo? Nor hasiko da idazten? Bakoitzak bere orrian idatziko du? Ados nago. Ez nago ados. Gaizki dago.	
jarduera multzoa : Azken ekoizpena, Gure testua sortzen			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA	BEHAKETA / Adierazleak

<p>Bakoitzak bere pertsonaiaren datuen arabera, orri batean edo kuboan idatziko du.</p>	<p>Kuboa</p>	<p>Nire pertsonaia ...da Pertsonai ospetsua izan zen. Nik kuboa egingo dut. Nik paperean idatziko dut.</p>	<p>Biografia bat idazteko gai da eredu bat oinarri bezala izanik.</p>
<p>Autoebaluazioa Ebaluazioa</p>	<p>Portfolioan ebidentziak jaso.</p>		<p>Unitatearen autoebaluazioa Sekuentzia ebaluazioa (irakaslea)</p>

Egoera: Aspaldi gertatutako istorioak kontatuko dizkiegu elkarri. Bukaeran, txikitan edo duela urte batzuk gertatutako pasadizo bat kontatuko duzu.

3. UNITATEA: PASADIZOA KONTATZEN. ZER GERTATU ZEN?

HELBURUA:

Aspaldiko gauzak deskribatu.
Gertatutako pasadizo bat kontatu.

HIZKUNTZA FUNTZIOAK ETA EGITURAK

Data adierazi

Urtea: 2001ean, 2002ko azaroan, 2010. urtean...

Lehenaldian hitz egin

Lehenaldiko formak: zen, zegoen, zeukan, nituen...

Aspektua lehenaldian: oparia erosi nuen, jende gutxi ezagutzen nuen

Lokailuak: egun batean, **-enean, bezain pronto, gero, berehala,** ondoren, azkenean...

Adjektiboak: zahar, txiki, eder, ...

Izenak: kartera, filma, laguna, amorrua, lotsa, zoriontasuna, nazka, poza,...


Sentimenduak adierazi


Esapidea: Hau! (lotsa, beldurra, **ezustekoa,** amorrua,...)

Ataza: Argazki bat erabiliz edo beste euskarri baten bidez (Voki avatarra), ikaskideei argazki horri lotutako pasadizo bat kontatuko diozu.



1. Aurrena, informazioa bildu: aukeratu argazkia, edo momentua eta pentsatu pasadizo horretan.

Zenbat urte zenituen? Non zeunden? Norekin zeunden? Zer zegoen? Zer gertatu zen? Nola zeunden?



Testuaren egitura		Ikaslearen ahozko adierazpena
1. Zerbait kontatzeko eta deskribatzeko hizkuntz-formak		<p>LH: Egun batean, hondartzara joan nintzen nire ama eta aitarekin. Orduan lagun bat ikusi nuen eta agurtzera joan nintzen. Baina ez zen nire laguna, beste bat zen. Hau lotsa! Azkenean buelta eman nuen eta nire toallan etzan nintzen.</p> <p><i>ARGAZKIA (adibidea)</i></p>  <p><i>DBH: Egun batean, zinemara joan nintzen, baina berandu iritsi nintzen eta kalean gelditu nintzen. Orduan, lagun bat ikusi nuen eta denda batera joan ginen. Dendara sartu nintzenean konturatu nintzen kartera ez nuela. Kalera irten nintzenean, udaltzain bat ikusi nuen eta galdetzera joan nintzen. Oso urduri nengoien eta ez nuen</i></p>
KONTATU	DESKRIBATU	
<p>Noiz? Egun batean, 2007. urtean, txikia nintzenean, 5 urte nituenean,..</p> <p>Non nengoien? HondartzaN, kaleaN, eskolaN,..</p> <p>Zer egin nuen? Joan nintzen, hartu nuen, ikusi nuen, sartu nintzen, ...</p> <p>Zer gertatu zen? Apurtu zen, ez zen..., zikindu nintzen, erori nintzen, zapaldu nuen,..</p>	<p>Nolakoak nintzen? Umea nintzen, 5 urte nituen, ...</p> <p>Normalean zer egiten nuen? Normalean, plazara joaten nintzen, lagunekin ibiltzen nintzen, institutuan /eskolan bazkaltzen nuen...</p>	

<p>Nola sentitu nintzen? Hau! Azkenean zer gertatu zen? Azkenean</p>		<p><i>ikusi zer zeukan eskuan. "Hau al da?" esan zidan eta ikusi nuen nire kartera bere eskuetan. Hori zortea! Udaltzainak kartera lurrean aurkitu zuen denda aurrean. Azkenean, filma ez nuen ikusi, baina afaltzera joan nintzen nire lagunarekin.</i></p>
<p>2. Testuari lotura emateko lokailuak:</p> <p>Hasiera emateko: egun batean, lehengo egunean, iaz, aurreko astean, duela hiru urte...</p> <p>Jarraipena emateko: gero, orduan, geroago, ondoren,...</p> <p>Ekintza kokatzeko: garai hartan, urte haietan, orduan</p> <p>Zerbait noiz gertatu zen kontatzen jarraitzeko: -enean (joan nintzenez, ikusi nuenean...), bezain pronto, segituan, berehala...</p> <p>Istorioa bukatzeko: azkenean, bukatzeko...</p>		<p>ARGAZKIA (adibidea)</p> 

1. jarduera multzoa: UNITATEA AURKEZTU ETA HELBURUAK ZEHAZTU			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA	BEHAKETA / Adierazleak
<p>Motibazio jarduerak Hasierako abestia (baloreak) entzun, ikasi estribilloa, abestu (oso polita!!)</p>	<p>"Ilusio izpi bat" abestia bideoa. Estribilloa: <i>Noizbait euriak lurra bustitzen badu, noiznahi ostadarra barruan daukagu, orain ilusio izpi bat gara gu txatxatxara txarara.</i></p>	<p>Erraza /zaila da.</p>	<p>Parte-hartzea behatu.</p> <p>Parte-hartzea behatu.</p>

<p>Ataza ulertzen eta adierazten Zer egingo dugu? Argazki bat erabiliz, ikaskideei argazki horri lotutako pasadizo bat kontatzen. <i>Aldaera (Voki avatarra erabili)</i></p> <p>Eredua aurkeztu. (LHko Amira / DBHko Iuli)</p>	<p>Arbelean: Antolatzaile grafikoa + txuleteroa bakoitzarentzat *(Word) Antolatzaile grafikoa ZER egingo dugu? NORI? NOLA? ZER beharko dugu? <i>Argazkia (benetakoa edo internetetik, egoera adierazten duena).</i></p> <p>EREDUAK *VOKI avatarra (beste aukera bat) Amira LHko Eredua A2</p>  <p>Iuli DBHko Eredua A2</p> 	<p>Zer egingo dut? <i>Pasadizo (barregarria, beldurgarria) kontatuKO dut.</i> Nori? <i>Gelako lagunEI kontatuKO diet.</i> Nola? <i>AhoZ/ Avatar bitarteZ kontatuKO dut.</i> Zer beharko dut? <i>Argazkiak / ordenagailua/ Voki programa/... beharko dut/ditut.</i></p>	<p>Egin beharrekoa antolatzaile grafikoarekin laguntzaz edo txuleteroen bidez adierazten duen ahoz. Ideia berriak gehitzen dituen behatu. Motibatzen duen ekintza den behatu.</p>
2. jarduera multzoa: AURREZAGUTZAK AZALERATU			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA	BEHAKETA / Adierazleak

<p>Aurrezagutzak azaleratu:</p> <p>Argazkiak/irudiak gelara ekarri eta pasadizoa kontatzen saiakera egin.</p> <p>AURRETESTUA</p> <p>Pasadizoak sentiarazten diena identifikatzen hasi.</p> <p>Sentimenduak adierazi: amorrua, lotsa, poza, beldurra, tristura, urduritasuna, zoriontasuna, nazka, gozamena.</p> <p>Emozioen txartelak aurkeztu ondoren lurrean, horman jarri eta kontatuko duten pasadizoak sortarazten dien emozioaren ondoan kokatu eta izendatuko dute.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Argazkiak/ irudiak (ikasleek ekarritakoak) • Emoziotegia liburua (beheko aldean PDFa aurkitu daiteke). • Emoziotegia liburuaren eredua , irakurketa gida , materialak • Emozioen txartelak: <p style="text-align: center;">BELDURRA</p> <p style="text-align: center;">TRISTURA</p> <p style="text-align: center;">LOTSA</p> <p style="text-align: center;">POZA</p> <p style="text-align: center;">GOZAMENA</p> <p style="text-align: center;">URDURITASUNA</p> <p style="text-align: center;">ZORIONTASUNA</p> <p style="text-align: center;">NAZKA</p> <p style="text-align: center;">AMORRUA</p>	<p>Ikasleen aurretestuak (ahoz)</p>	<p>Indarguneak eta gabeziak detektatu.</p> <p>Emozioa izendatzen duen. Pasadizoa kontatzearen saiakera behatu: Hitz solteren bat esaten duen euskaraz.</p> <p>Beste hizkuntza batzuk erabiltzen dituen.</p> <p>Keinuen laguntza erabiltzen duen.</p>
<p>Planifikazioa eurekin batera osatzen hasi:</p>	<p>Planifikazioa txantiloia</p>		<p>Irakaslearen laguntzaz planifikazioaren atalak egoki</p>

Zer egingo dugu? atala	(deskargatu betetzeko)		betetzen ditu.
3.jarduera multzoa: EREDUA AZTERTZEN ETA EZAUGARRIAK IDENTIFIKATZEN			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA	BEHAKETA / Adierazleak
<p>Eredua aztertu: entzun Eredua ulertu: Iuliren (DBH) eta Amiraren (LH) pasadizoa entzun eta gero, pasadizoa gertatutakoa marraztuko dute ataletan: ikasle bikote bakoitzari eszena bat eman.</p> <p>Marraztutako eszenak erabiliz hirugarren pertsonan kontaketa egin bikoteka.</p>	<p>Eredua: DBHrako Iuliren pasadizoa : Eredua A2</p>  <p>LHrako Amira Eredua A2</p> 	<p>Eszenen arabera hirugarren pertsonan kontaketa ahoz:</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Iuli zinemara joan zen baina berandu heldu zen.</i> • <i>Lagun bat ikusi zuen eta dendara joan ziren.</i> • <i>Dendara sartu zen eta ez zuen karteraRIK.</i> • <i>Iuli kalera atera zen eta udaltzaina ikusi zuen.</i> • <i>UdaltzainaK bere kartera zuen eskuan.</i> • <i>Azkenean Iuli lagunaREKIN joan zen afaltzera.</i> <p>Eszenen arabera hirugarren pertsonan kontaketa ahoz</p> <ul style="list-style-type: none"> • Amira hondartzaRA joan zen bere ama eta aitarekin. • Lagun bat ikusi zuen eta agurtzera joan zen. • Baina ez zen bere laguna, beste bat zen. Ze lotsa! • Azkenean, buelta eman zuen eta bere toallaN etzan zen. 	<p>Behatu: Ahozko adierazpenean aditzaren komunztadura egokia den. Irudia eta esandakoa bat datozen.</p>

<p>Pasadizoak nola kontatzen diren ikasten. Istorio mutu hauetako protagonista balira bezala kontatuko dute gertatutakoa, hau da, lehenengo pertsonan. Txuleteroak egin pasadizoa besteei kontatzen ikasteko.</p>	<p>Istorio mutuak. Istorio bakoitzeko txuleteroa (Pasadizoa) egiteko txantiloia. Denbora antolatzaileak: Egun batean..... Geroago..... Ondoren..... Azkenean</p>	<p>KONTATZEKO <i>Denbora antolatzaileak eta ekintzak :</i> <i>Egun batean.....</i> Zer egin nuen?/ Zer gertatu zen? Liburu bat erosi nuen, oparia ireki zuen, etxera joan nintzen... Gero Azkenean</p> <p><i>Erosi, ikusi, egin, apurtu, zikindu, aurkitu, ireki, itxi,..→ +NUEN</i> <i>Sartu, joan, etorri, gelditu, atera, ibili, erori, ..→ +NINTZEN</i></p>	<p>Txuletero egokiak egin dituzten. Lagungarriak izan diren bere ahozko adierazpenean. Ahozko adierazpen egokiak ekoiztu dituzten.</p>
<p>Pasadizo bat gogoratu: idatziz Banaka egin, ikaskideei irakurri.</p>	<p>Pasadizo bat gogoratu</p>	<p>Aurreko hizkuntza formak.</p>	<p>Idatzizko adierazpena. (egokitasuna, koherentzia, kohesioa, zuzentasuna)</p>
<p>Planifikazio txantiloia betetzen jarraitu</p>	<p>Planifikazio txantiloia</p>		<p>Jarraitzen ari diren prozeduraz jabetzen diren behatu.</p>

4.Jarduera multzoa: HIZKUNTZA LANTZEN

JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA	BEHAKETA / Adierazleak
<p>Ume batek kontatutako pasadizoa zuzendu. Akatsak identifikatu eta testu zuzena zein izango zen adierazi.</p>	<p>Grabatutako eredua: Pasadizo barregarria Mohamed</p> <p>(Eredua zuzentzeko)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ergatiboa Nik naiz • Aditzak orainaldiak eta lehenaldian nahastuta daude 	<p><i>“Egun on Mohamed naiz eta nire istorioa kontatuko dizuet. Egun batean, nik Gabriel ikusi nuen eta buh! egin nion. Bera korrika joan zen (beldurtuta). Eta (egoera) oso barregarria izan zen.”</i></p>	<p>Akatsak identifikatu dituzte eta zuzenketa egokiak egin dituzte.</p>
<p>ASPALDIKO GAUZAK Nire lehenengo zenbait objektu noizkoak diren AHOZ adierazten data erabiliz.</p>	<p>Nire lehenengo... FITXA: word PDF</p>	<p><i>Nire lehen _____ (2001(e)an / 2002ko azaroan, 2010. urtean) izan nuen.</i> Noiz (urtea) Adibideak <i>...+(e)an Nik 2012an bizikleta berria erosi nuen</i> <i>...garren (.)+ urtean</i> <i>2009. urtean ikusi nuen denda batean nire ametsetako bizikleta ...ko + hilabete + (e)an</i> <i>2002ko azaroan hasi nintzen eskolan</i></p>	<p>Egokitasunez adierazi duen behatu. Zuzenketak egiten dituen behatu.</p>

<p>Emozioak adierazten pasadizoetan txertatzeko. Nahi izanez gero, sentimenduaren inguruan lanketa egiteko fitxak egin.</p> <p>Mimika jolasa: Emozioen ruleta* erabiliz egokitutako emozioa adierazi Hau _____! esapidearen bitartez. *Ahotsik gabe erabili gazteleraz baitago.</p>	<p>Emoziotegia: Irudiak deskargatzeko Emozioen fitxak</p> <p>“Pozik” liburuaren bideoa (Mies Van Hout). Bideoa ikusi eta gero beraiek egoerak asmatu eta antzeztu ditzakete (role play).</p>	<p>Esapideak: Hau _____ ! (Amorrua, lotsa, poza, beldurra, tristura, urduritasuna, zoriontasuna, nazka, gozamena)</p>	<p>Emozio bakoitzaren esanahia ulertu duen.</p> <p>Emozioak ondo identifikatzen ditu eta esapideak zuzen erabiltzen ditu.</p>
<p>Pasadizoak nola kontatzen diren ikasten. Istoria mutu hauetako protagonista balira bezala kontatuko dute gertatutakoa, hau da lehenengo pertsonan. Txuleteroak egin pasadizoa besteei kontatzen ikasteko.</p>	<p>Istoria mutuak. Istoria bakoitzeko txuleteroa egiteko txantiloia. Denbora antolatzaileak: Egun batean..... Geroago..... Ondoren..... Azkenean</p>	<p>KONTATZEKO <i>Denbora antolatzaileak eta ekintzak :</i> <i>Egun batean.....</i> Zer egin nuen?/ Zer gertatu zen? Liburu bat erosi nuen, oparia ireki zuen, etxera joan nintzen... Gero Azkenean</p> <p><i>Erosi, ikusi, egin, apurtu, zikindu, aurkitu, ireki, itxi,..→ +NUEN</i> <i>Sartu, joan, etorri, gelditu, atera, ibili, erori, ..→ +NINTZEN</i></p>	<p>Txuletero egokiak egin dituzten. Lagungarriak izan diren bere ahozko adierazpenean. Ahozko adierazpen egokiak ekoiztu duten.</p>
<p>Beldurrezko pasadizoa kontatzen.</p>		<p>Aurrezagupenak bideratzeko</p>	

<p>Aurrezagupenak aktibatzen, motibazio jarduera. Arbelean “Beldurrezko istorioa” idatzi. Aurrezagupenak bideratzeko galderak eta esapideak landu.</p> <p>Beldurrezko istorioak idazten lehen pausuak.</p> <p>Sararen misterioa idazten. Audio entzun eta fitxaren laguntzaz istorioa idatzi. Talde handian pentsatu eta banaka/binaka idatzi.</p>	<p>Arbela</p> <p>Istorio beldurgarriak fitxa.</p> <p>Audioa: Sararen misterioa mp3</p> <p>Fitxa: Sararen misterioa fitxa</p>	<p>galderak eta esapideak: <i>Zer da beldurrezkoa? Beldurra ematen duen zerbait. Non agertzen dira beldurrezko egoerak? Liburuetan, pelikuletan, .. agertzen dira.</i></p> <p>_____ beldurrezko pelikula/ liburua/serie bat da.</p> <p>_____ -N negoen. Lekua _____ zen. Bapatean _____ bat entzun nuen. Zerbait ikusi nuen. _____ zirudien. _____ handia pasatu nuen. Beldurtu nintzen.</p>	<p>Parte-hartzea eta adierazpena egokia den behatu.</p> <p>Fitxa egoki bete duten.</p>
<p>Planifikazio txantiloia betetzen jarraitu</p>	<p>Planifikazio txantiloia</p>		<p>Jarraitzen ari diren prozeduraz jabetzen diren behatu.</p>
<p>5.Jarduera multzoa: TESTUA SORTZEN</p>			
<p>JARDUERAK</p>	<p>BALIABIDEAK</p>	<p>HIZKUNTZA</p>	<p>BEHAKETA / Adierazleak</p>

<p>Zer motatako pasadizoa kontatuko duten erabaki: barregarria, beldurgarria,..</p> <p>Euskarria zein izango den: argazkia, irudiak, ...</p> <p>IKTak erabiliko dituzten erabaki: Voki abatarra, PPTa,...</p> <p>Txuleteroa erabiliz saiakerak egin bikoteka.</p>	<p>Argazkiak, irudiak</p> <p>Ordenagailua: VOKI, PPTa</p> <p>Txuleteroa. pasadizoa nola kontatuko dut?</p>	<p>Hasiera emateko: egun batean, lehengo egunean, iaz, aurreko astean, duela hiru urte...</p> <p>Jarraipena emateko: gero, geroago, ondoren,...</p> <p>Ekintza kokatzeko: garai hartan, urte haietan, orduan</p> <p>Zerbait noiz gertatu zen kontatzen jarraitzeko: -enean (joan nintzenean, ikusi nuenean...), bezain pronto, segituan, berehala...</p> <p>Istoria bukatzeko: azkenean, bukatzeko..</p> <p>Zer egin nuen?/ Zer gertatu zen?</p> <p><i>Erosi, ikusi, egin, apurtu, zikindu, aurkitu, ireki, itxi,..→ +NUEN</i></p> <p><i>Sartu, joan, etorri, gelditu, atera, ibili, erori, ..→ +NINTZEN</i></p> <p>Sentimendua adierazteko esapidea: Hau _____ ! (Amorrua, lotsa, poza, beldurra, tristura, urduritasuna, zoriontasuna, nazka, gozamena)</p> <p>Bukaera emateko: Azkenean...</p>	<p>Erabakiak hartzen ditu. Motibatuta jarduten du bere lana prestatzen.</p> <p>Saiakerak egiten dituztenean zuzenketak onartzen eta egiten dituzte bere ahozko adierazpena hobetzeko.</p>
<p>Ahozko pasadizoa kontatu ikaskideei banaka.</p>	<p>Prestatutako materiala.</p>		<p>Adierazpenaren egokitasuna, koherentzia, kohesioa eta</p>

			zuzentasuna. Adibidea Isei Ivei LH3	
Planifikazio txantiloia betetzen jarraitu	Planifikazioa txantiloia		Jarraitzen ari diren prozeduraz jabetzen diren behatu.	
6.Jarduera multzoa: EBALUAZIOA ETA KOEBALUAZIOA				
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA	BEHAKETA / Adierazleak	
Adierazpenaren koebaluazioa Ikasleek koebaluatuko dituzte bere ikaskideak txantiloia erabiliz. Adieraziko diote hizlariari koebaluazioaren edukia, arrazoituz. Autoebaluazioa Nola sentitu zara? Emoziotegiko irudia aukeratu eta arrazoitu.	Ahozko pasadizoa koebaluazioa	AHOZKO pasadizoa KOEBALUAZIOA Ikaskidearen izena _____	Koebaluazio eta autoebaluazio emaitzak	
		Ozen eta argi hitz egin du?		BAI / EZ
		Pasadizoaren ordena logikoa izan da?		BAI / EZ/ Hala hola
		Txuleteroa erabili du kontatzeko?		BAI / EZ
		Ondo ulertu da?		BAI / EZ / Hala hola
		Hobetzeko iradokizunik? <input type="checkbox"/>		
		Ondo egin duena edo gehien gustatu zaizuna <input type="checkbox"/>		
Planifikazio txantiloia betetzen jarraitu	Planifikazioa txantiloia		Jarraitzen ari diren prozeduraz jabetzen diren behatu.	

Autoebaluazioa Ebaluazioa	Portfolioan ebidentziak jaso.		Unitatearen autoebaluazioa Sekuentzia ebaluazioa (irakaslea)
------------------------------	-------------------------------	--	--